



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



### Asteazkena 2010-07-21

VIII. URTEA 2.057. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Itziar eta Elena Arrieta euren etxean, Puritaren erretratua atzean dutela. O. PEÑAGARIKANO



Astean bitan bildu dira ikasturtean zehar. A. BELAUNZARAN

## «Mahai-ingurura etorri eta momentu honetaz gozatzea osasuna da»

**BIDEGOIAN** Pasa berri den ikasturtean 72 eta 88 urte bitarteko bost emakume bildu dira astero s

## URUGUAIEN ZENDUTAKO GARBINE ARRIETA GOGOAN

**AMASA** Pasa den ekainaren 23an hil zen Purita bezala ezaguna zen amasarra; moja izatea aukeratu zuen, baina erlijioarekiko bokazioa baino, ingurukoak laguntzeko grina erakutsi zuen bere bizitzan zehar z

## Bost urte bete ditu Atekabeltz gaztetxeak

**LEITZA** Data behar bezala ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte datozen egunetarako 7



**XII. HITZA**  
**Argazki**  
**Lehiaketa**  
**Animatu eta**  
**parte hartu!**

argazkiak@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora  
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa



NORA  
BIDALI?



Duela gutxi zendu zen Garbiñe Arrieta amasarra Uruguaien; bizitza guztia ingurukoei eskainita Euskal Herriko eta Uruguako senideek harrotasunez gogoratuko dute beti.

## «Agur eta ohore Garbiñe»

### OLATZ PEÑAGARIKANO

**E**kainaren 23a egun tristea izan zen Euskal Herriko hainbat senideentzat, Garbiñe Arrieta amasarra hil baitzen. Hemen ez ezik, munduko bazter askotan sumatuko dute Garbiñe edo Puritak utzitako hutsunea, bere bizitza behar gehien zutenei laguntzen igaro zuelako. Bera ezagutu zutenek ez dute sekula ahaztuko emakume honek adierazitako elkartasuna, adorea eta sentiberatasuna, baita egindako lan guztia ere, noski. Bere bi ahizpek, Itziar eta Elena Arrietak hunkiturik gogoratzen dute bere oroimena.

1936ko otsailaren 5ean jaio zen Purita Amasako Garmendia base-rrian. Gaztetatik izan zuen bidaitezko eta ingurukoei laguntzeko grina. Emakumea izanik, mojasartzea zen bi helburu horiek betetzeko

ko bide bakarra garaiko Euskal Herrian. Horrela, 24 urte zituela Iruñeara joan eta mojasartzea erabaki zuen

### Aberritik mundura

Harrez gero, Puritak mojasarturik aberria utzi eta mundura egin zuen jauzi, bere ametsak errealitate bihurtzeko xedez.

Iruñetik Belgikara joan zen zuzenean. Bertan espainiar talde batekin elkarre bat sortu zuten, pape-rik gabe zeudenei laguntzeko asmoz. Beranduago, Holandara egin zuen bisita eta Erroma zein Buenos Aires ere ezagutu zituen. Hego Amerikan denbora luzea egin zuen Puritak, batez ere, El Chacon, Argentina ipar-ekialdean, kokaturik dagoen herrixkan Herrialde txiroa izanik, jende askorekin aritu zen lanean amasarra. Esaterako,



Garbiñe Arrieta edo Purita Uruguaien. HITZA

bertako haurrei eskolak ematen ahalegintzen zen, edota jendeak egindako eskulanak hiriburuan saltzen. Eguneroko bizitzan aurrera egiteko laguntzak ematen zituzten Puritak eta bere ingurukoei, edozein tokitan egonda ere. Ezin hobeto dakite hori uruguaitarrak. Izan ere, Montevideon igaro zituen Puritak bere bizitzako urterik gehienak, baita gogorrenak ere.

Itziar eta Elena Arrieta euren gogoratzen dute nolakoa izan ohi zen euren ahizparen eguneroko bizi-

modua: «Montevideon auzorik txiroenean etxebizitza alokatu eta ingurukoei ahal zuten eran laguntzen ahalegintzen ziren». Umeak eskolatzea, emakumei lantxoren bat topatzea, emagalduekin lan egitea... horixe zen mojen ogibidea.

### «Beti borrokalaria»

Garbiñeren lana, ordea, haratago zihoan: IHESA pairatzen zuten hainbat emakumek bere berotasuna jaso zuten, *Fransida* izeneko

erakundearen bitartez. Mojek finantzatzen zuten elkarrearen zati-rik handiena, pertsona partikular batzuen laguntzaz..

### Sorlekuarekiko hurbiltasuna

Egunerokotasun horretan murgildurik egon arren, sekula ez zion uko egin Garbiñe Arrietak bere euskal izanari. Horregatik Uruguaira iritsi ziren euskal errefuxiatuek bere goxotasuna jaso zuten lehen unetik. Adibide garbia dugu 1994ko abuztuak 23eko gertaera gordina: hiru euskal errefuxiatuen estradizioa onartzean Uruguako poliziak eragin zuen sarraskiaren lekukoa izan zen Purita. Eta urtero gertaera hori salatzeako antolatzen zuten martxan parte hartzen zuen berak, pertsona zapalduetik maitasuna adieraziz.

Esan gabe doa Puritak lan «ikaragarria» egin zuela; gogoa eta borrontate onarekin gauza mordoa lor daitezkeela erakutsi baitigu. Bera ezagutzeko aukera izan zutenek moja ez ohikoa izan zela diote. Izan ere, Puritak ez zuen adierazi erlijioarekiko bokazio handirik; bere fede bakarra ingurukoei elkartasuna adieraztea baitzen. Eta dirudienek, oso ongi asmatu zuen horretan, berari esker Uruguai eta Euskal Herria inoiz baino elkar-utuago sentitu dira, Euskal herriko senideez gain, hangoak direlako emakume eskuzabal honen hutsunea sumatuko dutenak



Uruguako lagunek Puritari eskaini dioten bideoko argazkiak. HITZA



Itziar eta Elena Arrieta euren etxean, Puritaren erretratua atzean dutela. OP



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Magia, txotxongiloak eta ipuinak, Zikloian

**Aisialdia** » Gaur izango du jarraipena Zikloia ekimenak Elorri tabernan izango den Diego Magoaren ikuskizunarekin.

## ERREDAKZIOA

Uztailaren 3tik herriko kale zein tabernetan kultur ekitaldi desberdinak ikusteko aukera dago, Zikloia ekimenaren barruan. Orain arte David Batllo eta Fermin Satrles malabaristak, Nanny Cogorno, Mariano Martínez eta Kixka artistak izan dira gurean, baina Zikloiak aurrera darrai. Gaur bertan Diego



La Compañía del Saco eta Diego Magoa izango dira Tolosako taberna desberdinetan. HITZA



Magoa izango da Elorri tabernan 22:30etik aurrera eta bihar, jugla-reen jokoa, musika eta txotxongiloak nahastan dituen ikuskizuna izango da La Compañía del Saco-ren eskutik Euskal Herria plazan 19:00etan. Ondoren, 22:30ean, Diego Magoa ikusi ahal izango da berriz ere, baina Asteasuarra tabernan.

Era berean, gogoratu behar da Zikloia Gau Giro ekimenaren baitan kokatzen dela, eta Gau Giroren egitarauaren barruan Tolosako Musika bandaren kontzertua izango dela ostiralean, hilak 23, Lopez Mendizabal kalean 22:30etik aurrera.



19:00etatik aurrera ariko dira gaur, finalerdiak jokatzen. E. EZEIZA

## Tolosa CFren Paleta Txapelketako finalerdiak, gaur

**Paleta** » Otermin-Urdanpilleta Karrera-Izagirre eta Lontxo-Nazabal Yugueros-Aldazabal ariko dira.

## ERREDAKZIOA

Tolosa CFren 42. Paleta Txapelketa ari da jokatzen Berazubiko frontoian. Gaur bertan, 19:00etan, finalerdiak jokatu dituzte. Otermin-Urdanpilleta Karrera-Izagirrean aurka lehiatuko dira eta Lontxo-Nazabal Yugueros-Aldazabalen kontra. Izan ere, herenegun jokatutako ligaxkan finalerdietako bi

koteak zeintzuk izango ziren finkatu zen, eta hauek izan ziren emaitzak: Otermin-Urdanpilleta 30 Balerdi-Agirre 15, eta Lontxo-Nazabal 47 Apeztegia-Maiza 30.

## Aurreko emaitzak

Era berean, iragan larunbata baino aurreragoko partidain emaitzak hauek dira: Mendigain-Sanchezek 18; Zubillaga-Zabalak 30. Landa-Galarragak 30; Balerdi-Agirrek 29. Yugueros-Aldazabalek 30; Agirre-Zelaiak 22. Apeztegia-Maizak 26; Zubillaga-Zabalak 30. Yugueros-Aldazabalek 28; Balerdi-Agirrek 30. Karrera-Izagirrek 30; Mendigain-Sanchezek 20. Landa-Galarragak 30; Agirre-Zelaiak 12.



## Tolosa-Getaria Orion garaile

**ARRAUNA** » Pasa den igandean Tolosa-Getariako neskek lehiatu ziren Orion Hondarribia, Orio eta Pasai Donibaneran aurka. Bikain aritu ziren eskualdeko eta Getariako neskek eta bandera eskuratu zuten, azkenean. Bestalde, larunbatean Kontxako uretan mutilzeko es-

tropadan, Getaria izan zen garaile, bertan Tolosako Joseba Alustiza eta Haritz Pagola aritu zirelarik bogan. Gaur bertan, 18:30ean Kontxan Gipuzkoako txapelketa izango da eta Tolosako Arraun Klubak «gure neskek» animatzera gonbidatzen ditu herritarrak. HITZA

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Eskualdean baseria edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu 634-45 9110 telefono zenbakira.

**KEY-LAN**  
Sarrailgintza

Nafarroa etorb. 11 behe - TOLOSA  
Mug.: 670 41 79 22  
Tel./Fax: 943 65 83 13

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta baliag banatzeko.  
Postu finkoak erakunde publikoetan.  
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenerako langileak behar dira.  
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako.  
Postu finkoak.  
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



# Herritarrek komun publiko eta jolas parke berriak dituzte

**Larraul** » Komun publikoak Zapateroren laguntzarekin ari dira eraikitzen eta jolas parke berria Landagipuzkoa 32ren bidez egin dute.

## ERREDAKZIOA

Larraulgo herriak azken hilabetearen obren aldetik mugimendua izan du. Alde batetik, jolas parke berria egin dute eta bestetik, herriko pilotalekuaren ondoan komun publikoak eraikitzen ari dira. Honelako kasuetan herritarren aldetik pazientzia behar izaten da, eta kasu honetan, herriko txikienei egingo zitzaien parkeko lanak luze, jolas parke berria bukatuta ikusi nahiko baitzuten jolastu ahal izateko. Dagoeneko bukatu dute eta baita estreinatua ere. Komun publikoaren kasuan, herriko San Esteban jaiak hasi aurretik bukatzea espero dute.

## Jolas parke berria

Xabier Mujika herriko alkateak azaldu duenez, «orain artean zegoen jolas parkea zaharkitua aurkitzen zen eta eraberritzeak kostu handia zuen. Gainera, ez zituen bete beharreko baldintzak ongi betetzen eta kokalekua ere ez zen egokia, errepide ertzean kokatua baitago». Hala ere, ez dute parke hau kenduko «orokorrean herritarrek gustukoa dute» eta. Gaia aztertuta, jolas leku berria herrigunean, hau da, oinezkoen gunean, egitea erabaki zuten. Horretarako, Landagipuzkoa 32 programa baliatu dute. Parke berria egitearen kostu guztia, 60.000 eurokoa izan bada ere, Gipuzkoako Foru Aldunditik 50.000 euroko laguntza jaso dute.

Jolas parke berria bi zatitan banatua dago, 0-6 urte bitarteko haur

## Jolas parke berria egin ahal izateko 50.000 euroko diru-laguntza jaso dute

rentzat eta 6-12 urte artekoentzako egokiak diren jolasak jarri dituztelarik.

Larraulen programa honetatik beste laguntza bat ere jaso dute. Uraren sarea berritzeko izango da. Hilabete honetako azken astean egingo dute osoko bilkura eta bertan esleituko dute obra. Behin obrak egin behar dituen enpresa zein den aukerata, obrekin irai-



Dagoeneko herriko haurrek estreinatua dute jolas parke berria. Eskolaren aurrean kokatua dago. E. MAIZ

lean hasiko dira. Kasu honetan, 300.000 euro gastatuko dituzte eta Landagipuzkoa 32 programatik %80ko diru-laguntza jasoko dute. Herrigunea ezlik, gainontzeko sare guztia berrituko dute.

## Komun publikoak

Bigarren urtez Zapaterok atera duen laguntza, Larraulen, komun publikoak egiteko erabili dute. Espainiako Gobernuaren Toki Inbertsiorako Estatu Fondotik, 25.600 euro inguru jaso dituzte eta pilotalekuaren ondoan, bi komun egiten ari dira. Bata ohikoa izango da eta bestea ezinduentzat egokitu.

Oraindik guztiz bukatu ez badituzte ere, egun gutxi barru amaitzea espero dute. «Ja guztia egina dago baina, leihoa jartzea eta margotze lanak bukatzea falta da», adierazi du Mujikak.



Festatarako bukatuko dute komun publikoak. E. MAIZ

# XXX. Santio Kros Herrikoa igandean izango da

**Villabona** » Zumbeltz Elkarteak antolatzen du. Maila ezberdineko haurrek eta helduek parte hartzeko aukera dute.

## ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Santio jaiak gainean diren honetan, Zumbeltz Elkarteak Kros Herrikoa antolatu du. Aurtengoa XXX. edizioa da eta Santiago egunez izango da. Hasiera, 10:30ean emango zaio eta izena aurretik eman beharko da. Adinaren arabera, maila ezberdinetan banatuta hartuko dute parte.

Benjamin mailako lasterketarekin emango zaio hasiera eta hauek, Zumbeltz inguruko ibilbidean buelta txiki bat egin beharko dute. Jarraian, 10:45ean, alebiren txanda izango da eta hauek zirkuituan



lazo krosek irudia da. Haurrak irteera hartzeko zain. ZUMBELTZ ELKARTEA

bi buelta txiki egin beharko dituzte.

11:00etan, infantilak, kadeteak, juniorrak, nagusiak eta beterrano-

ak aterako dira. Infantilek eta kadeteak, ibilbide nagusiari buelta bat eman beharko diote, hau da, korrika 2,5 kilometro egin beharko

dituzte. Juniorren kasuan, ibilbide horri bi buelta eman beharko dizkiote, 5 kilometro eginez. Eta nagusi eta beterranoek, 7,5 kilometro

egin beharko dituzte, ibilbide nagusiari hiru bira emanez.

Antolatzaileek adierazi duteenez, lasterketak gutxi gorabehera ordu bat izango da eta irauten duen bitartean, auto, kamioi eta autobusentzat, ibilbideak zeharkatzen dituen kale guztiak itxita egongo dira. Bestalde, antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen gerta daitezkeen istripuak eta gainera, parte hartzaileei, lasterketa baino lehen kontrol medikuak egitea gomendatzen die.

XXX. Santio Kros Herrikoian parte hartzen dutenen artean sariak banatuko dituzte: haurretatik hasi eta beterranoak bitarte, saria maila bakoitzeko lehen emakumeak eta lehen gizonezkoak jasoko dute.

Zumbeltz Elkarteak antolatzen duen lasterketa honen babeslea Villabonako Udala da.

# BIZITZAREN ESKOLA



Begoña Olamusu liburutegiko arduraduna, Paskuala Rezola, Karmen Jauregi, Valentina Kamio, Trini Iraola eta Axun Guridi dira taldekideak. AGURTZANE BELAUNZARAN

**Bidegoian** » Astean bitan biltzen dira liburutegian 72 eta 88 urte bitarteko bost emakume. Hauxe, bizitzaren eskola.

## AGURTZANE BELAUNZARAN

**H**utsik egin gabe, astean bitan elkartzen dira Bidegoiango liburutegian. Arratsaldeko hiruretarako puntual-puntual mahai borobilaren bueltan izaten dira Paskuala Rezola, Axun Guridi, Karmen Jauregi, Valentina Kamio eta Trini Iraola. Bidegoiango emakume apain hauen ondoan esertzen da Begoña Olamusu, liburutegiko arduraduna. Bost emakume hauen konpainia eta kontuekin gozatzen du Olamusuk. Izan ere, mahaikide gazteenak 72 urte ditu, zaharrenak 88. Badute zer kontatua, zer esana. Zenbat bizipen, oroitzapen, poz eta sufrimendu emakume hauen barnean.

Bi ordutz, astean bitan, egunkaria irakurtzen dute, aldizkariak, liburua... eta irakurritakoaren gainean hitz egiten hasten dira. Bakoitzak bere esiloan, bere bizipen eta pentsatzeko modua mahai gainean husten du. Dibortzioa, abor-

tua, euskara, lehengo bizimodua, Euskal Herria, emakumeen berdintasuna, elkarbizitza, erlijioa... «Etxean zerbaite interesgarria irakurri badute ere, artikulua edo notizia ekartzen dute. Gero horren inguruan hitz egiten dugu eta informazioa osagarria nahi badute, internetetik ateratzen dugu», dio liburutegiko arduradunak. Liburuzainak hau esan bezala, Axun Guridik Saharako emakumei buruz irakurritakoa gogoratu du: «Sahara non zegoen ez genekien ziur eta Begoñak mapa ateratu zigun eta munduan kokatu genuen».

### Liburutegiko harpidedunak

Liburu artean daudela probestuz, besoazpian liburua dituztela eskotan ateratzen dira.

«Nik euskaraz gusturago irakurtzen dut. Birlobak ere ekartzen dizkit liburua irakurtzeko. Orain Peru Abarka irakurtzen ari naiz, baina bizkaiera zaila egiten zait ulertzeko», azaldu du 88 urte eta

irribarrea galtzen ez duen Paskuala Rezolak.

Axun Guridik eskuartearen *La voz de las 13 abuelas* liburua du: «Munduko leku ezberdinetako emakume indigenen sinesmenak, bizipenak, ohiturak biltzen ditu liburua eta oso interesgarria iruditu zitzaidan».

**«Mahai-inguru honetara etorri eta momentu honetaz gozatzea osasuna da»**

**«Batzuetan birlobak ekartzen dizkit liburua irakurtzeko; euskaraz irakurtzea nahiago dut»**

**«'La Voz de las 13 abuelas' liburua dut gustuko, mundu indigenako emakumeen bizipenak dira»**

Karmen Jauregik, Jesusen bizitzari buruz irakurritakoa gogoratzen ditu: «Erligioak gure bizitzan garrantzia ikaragarria izan du eta orain horren inguruko zerbaite irakurtzen dugunean, badugu zer esana eta kontatua».

### Lagun artean, giro goxoa

Duela bi urte hasi ziren elkarrekin biltzen. «Lehenengo urtean, norberak bere bizitzako une gogorrez hitz egin zuen, bizi eskarmentuaz, familiaz... batek hitz egin besteei entzun errespetu osoz», azaldu du liburuzainak. Bigarren urtean elkar ezagutu ondoren jorratzen diren gaiak kolore eta gustu guztieta-koak dira.

Apain-apain biltzen dira bost emakumeak; gogotsu eta pozik jotzen direnaren seinale. Trini Iraolarentzat «osasuna da mahai-inguru honetaz gozatzea». Taldekide berrienak ere bat egiten du Iraolak esandakoarekin. «Paskualak komentatu zidan liburutegian biltzen zirela astero eta animatzeko. Hutsik egin gabe etortzen naiz. Oso pozik nago giro honekin», dio Tolosa eta Bidegoian artean bizi den Valentina Kamiok. Liburutegiko saioa amaitzean, kafearen txanda iristen da: «Kafesnea hartzen dugu eta ondoren kartetan jokatzen dugu, hau bizipoza da guretzako», diote. Lagun giro goxo honetan Axun Guridik eta Paskuala Rezolak ere *ahotsak.com* proiektuan parte hartu dute. Beraien euskara eta bizimoduaren kontakizunak grabatuak geratu dira.

### Ikasturte amaiera

Udaran oporrak hartuko dituzte. Datorren iraila iristeko desiratzen agurtu dute teiatupeko liburutegi argitsua, mahai borobila, liburutegiko arduraduna, beraien momentu politorien sortzailea. Bi hilabete barru berriro elkarrekin egoteko esperantzan hartu dute igogailua. Kafesnea eta karta jokoen ordua iritsi zaie.

**«Paskualak animatu ziten etortzera eta oso pozik nago lagunarteko giro honekin»**

**«Hemendik ateratzean, kafesnea hartzen dugu eta gero kartetan jolasten dugu, hau bizipoza da»**

Begoña Olamusuk ere datorren urtean esperientzia hau errepikatzea espero du. «Oso aberasgarria da beraiekin egotea. Konplizitate sortu da, intimitatea, konfiantza. Beraiek diren bezala agertzen dira».

Bizi filosofia bat biltzen da mahai borobilaren bueltan. Bizitzaren eskolak, unibertsitateak emanen duena jasotzen baita.

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 09:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31890 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>





Munduko Gazte Abesbatzak eskainitako emanaldi bateko irudia. HITZA

## David Azurza tolosarraren 'Oihu hau' obra abestuko du Munduko Gazte Abesbatzak

**Tolosa** » Azurzaren obra hautatu dute Euskal Herrian, Katalunian eta Kanarietan egiten ari diren itzulian abesteko.

### OIHANA IGUARAN

Munduko Gazte Abesbatza kontu handiz eta froga gogorrek gainditu ondoren hautatutako 80 gaztek osatzen dute, mundu osoko 80 gaztek, hain justu. Honela, urterotopaketa bat antolatzen dute gon-

bidatutako zuzendariekin, gero itzuli bat egiteko. Aurten bi zuzendari gonbidatu dituzte: Ragnar Rasmussen norvegiarra eta Josep Vila katalana.

Aurtengoan, gainera, tolosar-baten kanta ere kantatuko dute, David Azurzaren *Oihu hau* obra, hain zuzen. Euskarazko lan bakarra izango da, gainera.

### Xabier Lizardiren testuetan oinarritutako kanta

Xabier Lizardiren testuetan oinarritutako lana da, eta testu horietan

sagarrondo loratueta giro poetikoa azaltzen da. Honela, obran zehar sagardoaren festa antzeztzen da, abeslariak eurek egindako perkusioarekin lagundurik, euskal kulturaren sustraiak agerian utziz. Obra hau lehen aldiz Tolosako Abesbatzen Lehiaketan antzeztu zen, ahots berdinetarako idatzi zen bertsioan, eta epaileak zutik jarri zituen.

Ahots mistoentzat prestatutakoa hautatu du koru honek, eta atzo iluntzean aurkeztu zuten Donostiako Kursalean.

## Urrian egingo dute Txintxarri eguna

**Alegia** » Udako oporraldien ostean, irailean hasiko dute ikasturte berria, eta Txintxarri eguna ospatuko da udazkenean.

### OIHANA IGUARAN

Herriko bi abesbatzek ongi merezitako oporrak hartuko dituzte udan, eta irailetik aurrera ekingo diete berriz 50. urteurreneko ospakizunei.

Urriaren 24an egingo dute Txintxarri eguna; hori izango de-

larik urteurreneko ospakizun garrantzitsua.

### 50 urte hauetako abeslariak bilduko dira

Egun horretako kontzertuan 50 urteotan abesbatza kantari ibili diren abeslari guztiak bildu nahi dira, kantu pare bat elkarrekin kantatzeko. Gaur egungo kantariak oporrak hartuko dituzte udan, eta irailetik aurrera ekingo diete berriz 50. urteurreneko ospakizunei. Hurrengo hilabeteetan Txintxarri egunerako prestaketa lanetan ibiliko da herriko korua.

## Gutunak

### Ohar bat bidaltzea ez da nahikoa

Udalak duela egun gutxi gutun bat igorri zuen etxeetara. Bertan honakoa zioen: «Abiadura-mugak errespetatuz gidatzeko eskatzen dizuegu, batez ere, herri-bide eta baserri inguruetan, ibilgailuak azkar ibiltzen direla eta kexak jasotzen ditugulako». Horren aurrean, Abaltzisketako herritar bezala, adierazi nahi dudana da, ohar hau bidaltzea ongi dagoela, baina ez dela nahikoa. Jada hiru antzeko gutun bidali dituzte, onartu ezin dena da, abisuak eman bai, baina neurrikik ez hartzea. Gainera neurriak betetzen ez dituztenen izenak emateko gomendioa egiten dute, baina, jendea ez da hasiko araua hausten dutenen izenak ematen.

Idatzian ohartarazten dute, «aurrerantzean, abiadura muga hauek errespetatzen ez direla jakinez gero, Udala zuzenean jarriko dela harremanetan araua hausten duenarekin, eta hala ere jokoera aldatzen ez badu, neurri bereziak

hartzera behartuta egongo direla». Baina hau gero ez da betetzen.

Bestalde, Olano auzoan, Aitzeta etxean bizi da alkatea bera, eta baita, Jose Mari Altuna zinegotzia ere. Hori dela eta, nire iritziz, besteik kargua hartzen hasi aurretik, beraien etxeetara begiratu behar ko lukete. Udalekoek eredu izan behar dute. Denbora aurrera doa, eta gauzak ez dira aldatzen. Zer-bait larria gertatu baino lehen neurriak hartzea hobe izango da ba.

Idatzian diote ere, egungo arautegiarekin, herri bideetan 30 kilometro orduko abiadura ezin dela gainditu, baina asko, 60 eta 80an pasatzen dira. Bestetik, errepidea garbi mantentzeko duela lau hilabete inguru kamioi batzuei kargu hartu zieten, bide horietatik igarotzean. Baina zer da garrantzitsua-goa? Txukun mantentzea edo abiadura arazoak konpontzea? Zer interes du ba Udalak abiadura murrizketak ez exijitzea, eta legea betetzen ez dutenei kargua hartzeko?

**Javier Garmendia.** Abaltzisketa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Bost urte kultur eta aisialdirako alternatibak sortuz

**Leitza** » Bosgarren urteurrena ari da ospatzen egun hauetan Atekabeltz gaztetxea; aurrera begira erronka ugari dituzte.

## ESTI EZEIZA

«Zirikatzan, jostatzen, esaten, larritzen, borrokatzen, hazitzen, maitatzen, antolatzen, gogoratzen, aitzan, eraikitzen, ikasten, irakurtzen, margotzen, bost urte gauze autogestioz sortzen». Horrela laburtzen dute Leitzako Gazte Asanbladako kideek Atekabeltz gaztetxeak sortu zenetik hona, egindako ibilbidea.

Atzobosturte okupatu zuten 16-20 urte bitarteko hainbat gaztek aurretik, guardia zibilek «okupatutako» etxea. Gazte Asanbladako kideek ilusioz betetako egun bat bezala gogoratzen dute okupazio eguna. Behin etxea eskuratuta, urte bat inguru pasa zuten, auzolanean, hau konpontzen, margotzen eta atontzen. Bost urte beranduago, kultur eta aisialdiaren erreferente bilakatu da Atekabeltz. «Gaztetxe irekia, dinamikoa eta langilea» da Leitzakoa. Bertako kideen esanetan, «herriari bizia ematea lortu du, eta gazteei aisirako alternatiba bat eskaintzea». Autogestioa eta herria dituzte oinarritzat. Hori dela eta, edonork hartu dezake parte bertan antolatzen diren ekimenetan.

## Urteurren borobila ospatzen

Aipatu moduan, hortaz, atzo bete zituen bost urte Leitzako gazteen etxeak. Data borobil hau ospatzeko aste guztian zehar ari dira ekitaldiak egiten.

Astelehenean, Askapenako kide batek Palestinaren inguruko hizkaldia eman zuen. 25 lagun bildu ziren saioan, eta bertan, Israelgo estatuaren sorreraz, Palestinan politikaz eta hango egunerokoaz mintzatu zen. Atzo berri, egun

handia ospatzeko, Haize Goikoetxearen *Itsasoaren alaba* dokumentala ikusi zuten. Goikoetxearen aita, Mikel Goikoetxea, Txapela, 1984an, GALEk hil zuen. Hogeita bost urte beranduago, Haize haren arrastoaren bila hasten da, *Itsasoaren Alaba* dokumentalean. Honen ondotik, parrillada egin zuten.

Gaur berri, mendi martxa egingo dute. Atekabeltz-etik 10:00ak aldera aterako dira, Urepelera igotzeko. Ibilbidean zehar, hara iritsi baino lehen, bazkalduko dute, Ixkibar-ko inguruetan. Bertan, Leitzalarreko paraje horietan, jateko tokia baitago. Gero jokoak egingo dituzte, eta azkenik, berriro bideari ekin, Urepeleko tontorrera igotzeko. Hona ailegatu ondoren, berriro, beranzko bidea hartuko dute, eta Usategietako mendi txabolana igaroko dute gaua. Ostegun eguerdian iritsiko dira berriro Leitzako herrigunera. Iluntze horretan bertan, beste ekitaldi bat izango dute. Leitzako gaztetxeen inguruko solasaldia egingo dute. Izan ere, Leitzan, orain artean bi gaztetxe izan dira. Alde batetik, egungoa, eta bestetik, duela hogeita bost urte sortu zutena. Hau herriaren erdigunean, mediku etxea zena bezala ezagutzen denean zegoen kokatuta, eta bi urtez egon zen martxan. Hala, bertako kide izan zirenak eta gaur egun direnak elkartuko dira, Leitzako gaztetxeen inguruko hausnarketa bat egiteko.

Ostiralean, I. Korto Lehiaketara aurkeztu diren laburmetriak proiektatuko dituzte. Denera, 10 lan aurkeztu dira norgehiagokara. Hauetako batzuk herritarrenak baldin bada ere, Tolosaldeko eta Altsasu aldeko jendeak ere hartu du parte. Behin lanak aurkeztuta, ikusleek bozkatu egin beharko dute, eta onena dela uste dutena, saritu. Antolatzaleak gustura dauka, lehen lehiaketa honek izan duen harrerarekin, eta harrituta geratu dira, herritik kanpo ere

oihartzuna izan duelako. Honen bestez, hau lehendabizikoa baldin bada ere, ekimenak jarraipena ziurtatua du.

Larunbata ekitaldiz betetako eguna izango da eta jaia herri gutzira zabalduko dute. Goizean, 11:00ak aldera aterako dira kalejira plazatik, txistularien laguntzaz, eta Gaztetxera joango dira. Honekin, duela bost urte, Atekabeltz okupatu zutenean egindako ekitaldia errepikatu nahi dute. Txupinazoa bota eta hamaiketakoan ostan, bazkaria izango dute zain. Paella jatea egingo dute, eta arratsaldean, poteoa, kalejira moduan. Hortik aurrera musika izango da nagusi, hip-hop-a nahiz rocka.

## Aurrera begira erronka ugari

Bost urte hauetan, lan ugari egin dute Gaztetxean, baina aurrera begira, moldaketa sakon bat egin nahi dute Gazte Asanbladakoek. Beraiek azaldukoaren arabera, «orain arte, etxeari moldaketa asko egin dizkiogu, baina beti, honen ematen zituen aukeretara mugatu dugu gure jardura. Hemendik aurrera berri, etxea gure beharretara moldatzea nahi dugu». Hori dela eta hainbat aldaketa egingo dituzte aurrerakuntza dute.



Larunbatean kalejira ostean botako dute txupinazoa. A. IMAZ

Leitzako gazteen esanetan, «datorren ikasturtera begira, herrira, oraindik ere gehiago zabaldu nahi dugu, eta horretarako, Atekabeltz, talde, elkarte eta eragile ezberdinen gune izatea nahi dugu». Jada, hainbat taldek dute txokoa etxe okupatuan, baina aukera hau herritar gehiagori zabaldu nahi diote, gerora elkarlanean, ekimen ezberdinak antolatzeko. «Herrigune bat

sortu nahi dugu, eta hori auzolanaren bidez, dena moldatuz, lortu nahiko genuke», diote. Hala, herri mugimendu alternatibo bat sortzea da beraien helburu nagusia.

Atekabeltz-ekoak harro daude urte hauetan egindako lanarekin eta emaitzekin, baina argi dute aurrera begira erronka ugari dituztela eta oraindik ere asko dagoela egiteko.

www.euskalherriko  
**PLAZA**.com



**skunkfunk** %20

Lehen: 31,53 €  
Orain: 25,22 €

Lehen: 19,83 €  
Orain: 15,86 €

Lehen: 66,12 €  
Orain: 52,9 €

**okot** %20

Lehen: 28,48 €  
Orain: 22,78 €

Lehen: 57,17 €  
Orain: 45,74 €

Lehen: 28,48 €  
Orain: 22,78 €

20 €

20 €

20 €

**TTAK**

20 €

2 elastiko  
35 €

## » ATEKABELTZ GAZTETXEAREN 5. URTEURRENA

### Uztailak 21, gaur

■ **10:00.** Mendi martxa egingo dute. Atekabeltz-etik 10:00etan abiatuko dira eta egun eta gaupasa egingo dute. Ixkibar eta Usategietara joango dira.

### Uztailak 22, bihar

■ **20:00.** Leitzako gaztetxek, lehen eta orain izenburupean, mahai-ingurua.

### Uztailak 23, etzi

■ **22:30.** Korto lehiaketako proiektzioa, Atekabeltz gaztetxean.

### Uztailak 24, larunbata

■ **11:00.** Kalejira plazatik abiatuta Gaztetxera, txistulariek alaituta.

■ **Ondoren.** Txupinazoa eta hamaiketakoa.

■ **14:00.** Bazkaria Atekabeltz gaztetxean. Arratsalde partean berri, kalejira.

■ **20:00.** Goienetxe anaiak hip-hop taldea eta break dance erakustaldia.

■ **Jarraian.** Luntxa.

■ **23:00.** Kontzertuak, Zopilotes Txirrius eta Wishky Mama taldeekin.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Aisialdia

■ **Tolosa.** Diego Magoa Elorri ta-bernan 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.  
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

### » TELEBISTA

#### 28 Kanala

**08:30.** Estetika. **09:00.** Muka-Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kafe t'ardi. **10:30.** On ein! **11:00.** Sakonduz. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Lekeitio zine.

**12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kafe t'ardi. **14:30.** On ein! **15:00.** Sakonduz. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Lekeitio zine. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa Kultura. **18:30.** Ikusmira. **19:00.** Danbaka. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Eskuokin.

(\*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatu dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak



### Zorionak amatxo!

Eutsi hor, alai-alai eta jattor-jattor!

## 'El fantoche' lana Kolonbiako Teatro Comunidad-en eskutik

**Tolosa** » Lana Aragoiko Los Titiriteros de Binefar taldearekin batera ekoitzi dute; Topic-en ikusi ahal izango da 22:30ean.

### ERREDAKZIOA

Kolonbiako Teatro Comunidad izena duen antzerki taldea *El fantoche* lana prestatzen aritu da azken hilabeteetan, Topic-en.

Orain, horrenbeste lan egin eta gero, lana Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen Zentroan bertan estreinatzeko garaia ere iritsi zaie.

### Kolonbia eta Aragoi, elkarlanean

Teatro Comunidad eta Aragoiko Los Titeriteros de Binefar taldeen arteko ekoizpena da hau.

Ekimen honen azken pausoa larunbateko taularaztea izango da, hortaz, Paco Paricio zuzentzen duen lana 22:30ean eskainiko dute.

Antzezlan hau, txotxongilo far-tsa bat da, eta iraganetik, ahaztuta-ko pertsonaia bat berreskuratzen du, Manuelucho, hain zuzen ere.



Larunbatean 22:30etik aurrera ikusi ahal izango da lana. HITZA

Manuelucho ezagutzen den Kolonbiako lehen eskularruzko txotxongiloa da eta 1914an sortu zuen Sergio Londoño txotxongilogileak.

Larunbatean ikusi ahal izango

den lanean *Fantoche* herri baten istorioa kontatuko du. Pertsonaiak pikaroen ekintzak eta ustelkeria horrenbeste onartzeagatik, deabruari saldua izateko arriskua izango du.



## harpidedun izateak badu saria

### ① Afaria

Billabonako **Oinkari** dantza taldeak antolatuta, **uztailaren 25ean**, Euskal Jaiaren baitan, **gaueko 21:00etatik aurrera** izango den afarirako **2 sarrera bikoitz.**



### ② Abentura

**Bizi Bizirik** Larraitzen zabaldu berria duen **Txindokiko Itzala** parkerako, **bi sarrera bikoitz.**



### ③ Sarrerak

Gipuzkoa **Indoor Kartingek** Tolosan zabaldu duen **auto zirkuiturako 2 sarrera** (irabazle bakoitzarentzat bana).



### ④ Sarrerak

Errenteriako **Txikikaia** haur parkerako **5 sarrera bikoitz.**

Niessen merkataritzaren zentroa  
943 107 888  
www.txikikaia.com



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza** info